

ARRATIA

Dylan Inglis: "Txinan asko hobetu neban nire euskera maila"

Dylan Inglis, Durham unibersidadeko Geografia ikasleak euskalki biren erabilera aztertzen dago, Zuberokoa eta Bizkaikoa, hain zuzen be. Eta Bizkaikoaren kasuan, Arratiako berbakerea batez be. Martian, unibersidadean, *Hizkuntza eta gizartearen* gaineko jardunaldietan, euskalki bi honeen erabilerearen dinamikak aurkeztuten dauan berbaldia egingo dau.

Urtailean, Arratian egon zan Inglis. Arratiako berbakerea, euskera batua eta gaztelania zein testuingurutan erabilten dabazan arratiarrak zuzenean ikusten.

Erredakzioa

Arratiako euskerearen gaineko ikerketa bat egiten zabilz?

Bai. Batua ikasten hasi nintzan eta maila jakin batera heldu nintzanean, euskalkien mundua zabaldu jatan. Lehen dana zan batua eta gero konturatu nintzan euskalkiak parra-parra erabilten dirala. Bizkaiera apurtxo bat ikasi neban eta gero zuberera.

Nire unibersidadeak emon eban argitara konferentzia bat egingo dala hizkuntza eta gizarte gai hartuta. Edozein hizkuntza izan leiteke: ingelesa, txinera... Orduan, nik pentsau neban, zer egin neike euskerearen inguruan? Ze, ni ez nago kualifikauta hizkuntza aztertzeko baina bai egoera aztertuteko; zelan erabilten dan ikertzeko. Zuberokoa egon naz lau egun, eta gero he-

men Arratian, beste lauzpabost egun, komunitatearen dinamikak aztertzen. Hau da, hizkuntzeari jagokonez, Arratian, neurri handiago edo txikiago baten, euskera batua, gaztelera eta arratiara erabilten dira; eta Zuberokoa, frantsesa, zuberotarra eta neurri txikiago baten, batua.

Sano desbardinak, ezta?

Zuberera euskalki oso bat da; oso uniforme, oso tinkoa da euskalki moduan. Bizkaiera barriz, ez: ia bailara bakoitzean modu desbardinan egiten da. Gainera oso handia da Bizkaia eta uste dot bizkaiera euskalkirik erabiliena dala. Jente askok egiten dau. Hasikeran, Bermeo aztertutea pentsau neban, biztanle eta euskaldunen kopurua gaitik. Zuberereak eta Bermeoko berbakereak erabiltzaile kopuru antzekoak ditue. Baina gero, bururatu jatan, Arratia herri bakar bat izan



Dylan Inglis Igorren egon zan Arratia Institutuan.

beharrean, herri batzuk dirala, berbakerea be, sano berezia daukala eta erabilera ez, baina ezagutza maila be oso antzekoa.

Antzekotasun batzuk be baditue zuberereak eta Arratiako berbakereak. Adibidez hitanoak leku bietan dauka presentzia. Eta badagoz berba batzuk hemen eta Zuberokoa esaten diranak eta gainontzeko lekuetan ez. Holango bitxikeriak.

Zer dala-eta ebatzi zenduan euskera ikastea?

Oin dala lauzpabost urte sartu zan Euskal Herria nire munduan edo nire konzientzian. Ama or-

duan, liburu bat idazten egoan, historialaria da. Liburuak, Euskal Herriko sorginen auzi batzuen gainean da, batez be Inkisizino garaia aztertuten dau. Hori dala eta, gurasoak, anaia eta laurok, hau da familian Iparraldera joan ginan behin, eta beste behin Nafarroara. Astebete egon ginan eta kultura ikusi genduan.

Niri sano interesgarria iruditu jatan, ze hur egon arren, hizkuntza eta kultura oso desbardinak dira.

Beraz interes hori biztu jatan eta handik bizpahiru urtetara, hizkuntza bat ikasi gura neban. Hainbat naukazan buruan eta

euskera aukeratu neban. Liburu biki bat erosi neban eta gero batek esan eustan barnetegian oso azkar ikasten dala euskera eta Zornotzan egon nintzan bolada bitan, hilabete bi lehenengo, eta gero beste hilabete bat.

Harrezkerotik ikasten egon naz. Txinan, berbarako, asko hobetu neban neure euskera maila, euskaldun pare batez egon nintzalako Shangai-n, han Euskal Etxe bat dago-eta. Baina batez be asko irakurten nebalako eta oin be asko irakurten dot eta Mintzanezagaz eta... astero saio pare bat egiten dot ebetrik, Ingalaterratik, ikasitakoa manteniduteko.

Noz izango da berbaldia?

Martian. Zoribarrez ingelesez izango da, Durham-eko unibersidadean dalako, baina akaso euskeratu egingo dot. Egindako azterketaren txostena irakurriko dot. Espero dot interesgarria izatea.

Jente askok eskatu deusta txostena. Hemengo jenteak, normala dan moduan, ez daki asko zubererari buruz. Eta Konferentzian neu izango naz euskerearen barri emoten bakarra. Lehenengotik, azaldu beharko dot euskera zer dan eta zerk egiten dauan berezi; gramatika eta beste gauza batzuk. Ingalaterran, frantsesa, gaztelania eta alemaniera ikasten dira, baina euskera ez, eta zeharo desbardina da. Espero dot guretzat interesgarriak diran gauza batzuk erakusteko gai izatea.

Eta ondoren zer? Aurrera begira euskera landuten jarraituteko asmoa daukazu?

Akaso bai. Nire karrerako amaierako lana izan leiteke proiektu honerik garapena emotea, era itxuroroso eta handiago baten. Oin nire ikasketak ingelesez dira, baina horreek amaitutakoan, hemendik urtebetera edo, gurako neuke euskeraz zeozer egin. Donostian Antropologia egiten da, euskeraz eta gaztelaniaz. Horrek emongo leuskit aukera bikaina Euskal Herria hurretik ezetuteko.